

ten duen bitartean ez du gure kulturarik inperialisten erasoak zapalduko eta berriz ere izango ditu Euskaltzaindiak beregana deitzeko moduko artzaiak.

Joxe Mari Aranalde

PIERRE EYHERAMENDY
(1891 - 1975)

Pierre Eyheramendy Maulen sortu zen 1891-eko abendoaren 28-ean. Sort-herrian egin zituen bere lehen eta bigarren mailetakoa ikasgoak. Baionako apezgaitegian ondarra eskolaturik, 1920-eko otsailaren 28-an apeztua izan zen.

Alduderat izendatu zuten behin, 1920-eko martxuaren lehenean; gero Bidarraitat 1924-eko uztailaren 15-ean.

Urte hetan Baionako "Musee Basque" erakustokian eman zituen euskara-erakuspen batzu, eta ager-arazi zuen liburuxka bat: *Methode pratique pour apprendre le basque*, Paris, Maisonneuve, 1929 (142 p.p. 19, 5 cms.).

Ikas-bide hori euskararen ikasteko lehen mailakoa zen.

Bertze bi liburu egin zituen eta polikopiatu baliatzen zituen, korreoz asko urtez eman zuen erakaskuntzako. Mail goragotakoak ziren.

1929-ko uztailaren 26-an Donazarreko bikario eman zuten, hor egon baitzen hamabi urte.

1941-eko abuztuaren 30-ean Mugerreko laborari ume-txurxtegiaren ezarri zuten arima-zain 1953-an *gure herria*-n lantxo bat eman zuen erdaraz: "Enquete géographique et démographique sur Saint-Jean-le-Vieux" XXV, pp. 328-337.

Euskaraz ez dugu uste behin ere deus ere ager-arazi duen.

1959-an Biarnurat joan zen Jurancun-eko bekario bezala.

1968-an utzi zuen apez-lana eta hanbo-ko "Arditeya" deitu apez-xahartegian sartu.

Hor hil da 1976-eko abenduaren 25-ean.

Euskalzain laguntzale zen, Xubero-ko urgazletarik bat.

P. Lafitte